

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Jardueren oroitza 2020



JARDUEREN OROITZA

2020



IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

© Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa

Edita: Instituto Vasco de Administración Pública
Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea

ISBN: 978-84-7777-611-6

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Grafo, S.A., Avda. Cervantes, 51-edificio 21 - 48970 Basauri (Bizkaia)

AURKIBIDEA

1. Aurkezpena	7
2. IVAPeko antolakuntza-eredua	11
3. Kudeaketa arloko mugari eta lorpen garrantzitsuenak	19
4. Zerbitzuak eta produktuak	23
5. Argitalpenak	51
6. IVAPeko kideen parte-hartzea biltzarretan, jardunaldietan eta ebaluazioetan	55

1.

AURKEZPENA

Aurreko urteetan bezala, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) 2020. urteko jardueren memoria aurkeztera gatoz.

IVAPen jarduerak lau esparru nagusi ditu:

- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako langileak hautatzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako langileak trebatzea.
- Administrazioan euskararen erabilera normaliza dadin bultzatzea, itzulpengintza ofiziala sustatzea, eta euskarazko terminologia juridiko-administratiboa ezarri eta zabaltea.
- Arlo linguistikoan, arlo juridiko-administratiboan eta kudeaketaren hobekuntzaren arloan aholkua ematea eta ikertzea.

2020. urtean garatutako jardueraren balantzea egiterakoan, ezinbestekoa da Covid-19 birusak martxoan sortutako pandemia aipatzea. Pandemia horrek bortizki eragin zion gizarte osoari, bai eta erakunde publiko guztien jarduerari ere, eta ondorioak 2021. urtean pairatzen jarraitzen dugu.

IVAPen jardueran ere eragin handia izan zuen. Martxoaren 18tik maiatzaren 11ra bitartean alarma-egoera deklaratu ondoren, Institutuko langileek, Administrazio Orokorreko gainerakoek bezala, aurrez aurreko jarduera bertan behera utzi behar izan zuten, pertsona gutxi batzuek izan ezik, haien lanpostuak kritikotzat jo baitziren eta administrazio-bulegoetan jarraitu baitzuten lanean. Hala ere, informatika-arloaren ahaleginari eta IVAPeko langileen jarrera onari esker, erakundearen jarduerari eutsi ahal izan zitzaion. Gainera, eta Administrazio Orokorreko langile guztiak egoera berean zeudenez, IVAPek prestakuntza-ekintza bat diseinatu eta enplegatu publiko guztien eskura jarri zuen, lan-egoera ez-presentzial horri laguntza eta sostengua emateko. Prestakuntza-ekintza horrek, bereziki, datuak babesteari eta arriskuak prebenitzeari buruzko alderdiak jorratzen zituen.

Funtzio Publikoko sailburuordearen 2020ko martxoaren 11ko Ebazpenaren ondorioz, aurrez aurreko prestakuntza-ekintza guztiak eten ziren. Hala ere, aurreikusitako ekintza gehienak mantentzeko asmoz, ikastaroak emateko modalitatea aldatu zen: aurrez aurrekoak izatetik telematikoak edo bideokonferentzia bidezkoak izatera igaro zen. Hori dela eta, modalitate berrira egokitutako eduki berriak diseinatu behar izan ziren. Hala ere, zenbait ekintza bertan behera utzi behar izan zituzten lehen hilabete horietan.

Udaberrian, ikerketa-lan bat egin behar izan zen ikastaroak eta jardunaldiak telematikoki emateko merkatuan zeuden baliabide eta plataformen artean, gure eskaintza gauzatzeko egokiena zein zen aukeratzeko. Azkenik, gure ustez egokiena zen plataforma aukeratu zen, eta plataforma horren erabilerari buruzko prestakuntza-pilulak prestatu ziren, tutoretza-bideo batzuen bidez, irakasleen prestakuntza errazteko.

Pandemiaren lehen olatua igaro ondoren, udazkenean, berriro ezarri zen aurrez aurreko prestakuntza. Prebentzio Zerbitzuarekin adostu ziren aplikatu beharreko prebentzio-neurriak: maskara nahitaez eta etengabe erabiltzea, gelen edukiera murriztea, neurri higienikoak, atsedendialdiak luzatzea, lokalak aireztatzea, etab. Ahal zen neurrian, ikastaro presentzialen kopurua murriztu zen eta eduki praktikokoak zituztenetara mugatu zen. Hala ere, ikasgelen edukiera murrizteak ezinbestean ekarri zuen ikastaroak bikoiztea edo hirukoiztea.

Esan dezakegu, zenbait arlotan prestakuntza-jarduera zertxobait murriztu bada ere (hizkuntza-gaikuntzako ekintzetan, iaz 99 izatetik 2020an 68 izatera igaro da, eta prestakuntza-ekintza orokorren kopurua 2019an 660 izatetik aurreko 379 izatera), gogobetetze-indizea ez dela jaitsi 2019an zegoen mailatik, 10etik 8,5 puntutik gora.

Egoera pandemiko horren ondorio logikoa izan zen, halaber, pandemiaren hilabete gogorenetan gure erkidegoko administrazioek aurreikusitako hautaketa-prozesuak etetea. Udaren ostean, jarduerak birprogramatu dira, eta normaltasunera itzultzen hasi dira poliki-poliki Prebentzio Zerbitzuak proposatutako neurrietara egokituta.

Komeni da aipamen berezia egitea Itzulpen Zerbitzuak ezohiko urte honetan egindako lanari. Martxotik aurrera, nabarmen ugarritu ziren lan-ordutegitik kanpoko itzulpenen eskararak eta urgentzia handikoak, batez ere EHAAra bidali behar ziren testuenak. Dokumentuak asteko edozein egunetan, asteburuetan, jaiegunetan eta edozein ordutan iristen ziren Itzulpen Zerbitzura. Egoera horri erantzuteko, itzultzaile-talde egonkorak antolatu ziren, lanalditik kanpo lan eginez, konpromisoa epe laburrean eta kalitate-maila bikainarekin bete ahal izan zutenak.

Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeke probei dagokienez, maiatzerako aurreikusitako lehen ohiko deialdia bertan behera geratu zen, baina irailera aurreratu zen bigarren deialdia egin ahal izan zen. Deialdi hori benetako erronka izan zen institutu honentzat; izan ere, 2.000 pertsona baino gehiago bildu ziren, eta osasunaren arloko prebentzio-arau eta -jarraibideetara egokituta egin zen: azterketa-denborak murriztu ziren, azterketa-eremuaren banaketan distantziak mantendu ziren, maskarak nahitaez erabili behar ziren, gel hidroalkoholkoa eskura jarri zen, lokalak aireztatu ziren, eta abar.

Pandemia geldiarazteko abian jarritako neurri guztiek ere zenbait egokitzapen bizkortzen lagundu dute, bai teknologiaren arloan, bai lehendik egiten hasiak ziren beste jardueraren arlo batzuetan. Hala, informazioa eta posta elektronikoa hodeian biltegitratzeko sistema bat ezarri da, gailu anitzeko sarbidearekin. VPN sare bat ezarri da, IVAPen aplikazioetara Internet bidez sartzeko. Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeke sistema birformulatu da. Institutuaren ekipamendu informatikoa hobetu da: gailu eramangarriak, webkamak, soinu-txartelak... Lan-bilera birtualetan parte hartzeko prestakuntza eman zaie pertsona guztiei. Bultzada handia eman zaio telelanari: 2019an telelanean zeuden 36 langile izatetik, 2020. urtearen amaieran 70 izatera igaro da. Era berean, lan ez-presentzialaren ja-

rraipen-sistemak hobetu dira, eta helburuak, adierazleak eta jarraipen-bilerak ezartzeko sistematika bat definitu da.

Argitalpen honetan IVAPek 2020. urtean egindako jarduera guztien xehetasunak azaltzen dira. Gogoan izan behar da jarduketa guztien azken helburua Euskadiko administrazio publikoekin elkarlanean aritzea dela, herritarrei zerbitzu efizienteagoak, kalitate gorenekoak eta elebidunak eskaintzeko.

2020 urtea bereziki zaila izan da, orain arte ezezaguna zen egoera bati aurre egin behar izan baitzitzaion, eta, ondorioz, lan-sistemak goitik behera aldatu ziren, herritarren eskaerei erantzuten jarraitzeko. Balantzea egiteko unean, erronka gainditu dela esan dezakegula uste dugu, errealitate berrira egokitzen jarraitu dugula. Baina hori guztia ez zen posible izango erakundeko 128 langileen dedikaziorik eta profesionaltasunik gabe; izan ere, langile horiek egunero ahalegintzen dira beren lana zerbitzu publikoaren balio partekatuetan oinarrituta egiten. Eskerrak eman nahi dizkiegu Institutuko pertsona guztiei.

IVAP-EKO ZUZENDARITZA

2.

IVAPEKO ANTOLAKUNTZA-EREDUA

IVAP (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea) Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari atxikitako erakunde autonomoa da. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zerbitzura bideratzen du bere zeregina, eta hiru jardun-eremutan sailka daitezke bere xedeak:

- **Giza Baliabideak:** administrazio publikoen zerbitzurako langileak hautatzea eta prestatzea.
- **Euskara:** administrazio publikoen zerbitzurako langileak euskalduntzea, itzulpenak, interpretazioa, terminologia eta administrazio-hizkeraren normalizazioa.
- **Azterlanak eta Argitalpenak:** ikerlanak egitea eta eskolak ematea, bai administrazioaren inguruan, era zabalean, bai euskal autonomiaren berezitasunen inguruan zehazki, baita liburuak zein aldizkari espezializatuak argitaratzea ere.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Lege Jaurbideari buruzko uztailaren 27ko 16/1983 Legean, IVAPen egiturari eta zereginei buruzko alderdi esanguratsuak xedatu ziren. Hona hemen:

- Zortzi helburu zehazten ditu eta, helburu horiek aurrera eramateko, atalak, sailak edo zerbitzuak antolatzeko bidea zabaltzen du.
- Erakundearen aginte-erakundeak sortzen ditu, eta nola osatuko diren eta zein eginkizun izango dituzten zehazten du. Zaingo Batzordea eta Zuzendaritza dira erakunde horiek.
- IVAPek bere aurrekontua du.
- Lege horrek Oñatiko Unibertsitate Zaharraren eraikinean ezartzen zuen IVAPen egoitza; Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartzeko 2/2007 Legegintzako Dekretuak, ordea, hori aldatu, eta IVAPen egoitza Gasteizen ezarri zuen.

MISIOA

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioekin lankidetzan aritzea, herritarrei zerbitzu efizientea, kalitatezkoa eta elebiduna emateko. Lankidetzan hori honako lan-lerro haue-
tan gauzatzen da:

- Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zerbitzurako langileak hautatu eta prestatu.
- Administrazioan euskararen erabilerearen normalizazioa eta itzulpengintza ofiziala bultzatu, eta euskarazko terminologia juridiko-administratiboa finkatu eta zabaldu.
- Hizkuntzaren, lege eta administrazioaren, euskal autonomiaren eta kudeaketaren ho-
bekuntzaren arloetan ikerkuntza sustatu eta aholku eman.
- Administrazioaren digitalizazioa sustatu.

IKUSKERA

IVAPek erreferentzia-zentro izaten jarraitu nahi du bezeroari zuzendutako produktu eta zerbitzu berritzaile eta kalitatezkoak eskainiz eta hurrengo hauek oinarri hartuta:

- Baliabide eta pertsona nahikoa, etorriko diren jarduera berriei aurre egiteko
- Pertsona kolaboratzailek, erantzunkideak eta etengabeko ikaskuntzan ari direnak
- Kudeaketa aurreratua
- Transformazio digitala
- Euskararen erabilera
- Berdintasuna
- Gardentasuna

BALIOAK

IVAPek, araubide juridikoak finkatzen dituen balioez gain, hots, herritarrentzako zerbitzu publikoaren etika, efikazia, efizientzia, gardentasuna, objektibotasuna, erakunde barruko zein erakunde arteko lankidetzan, eta pertsonen arteko tratu-berdintasuna, honako balio hauek bultzatuko ditu:

- Bezeroarenganako orientazioa
- Euskararen erabilerearen normalizazioarekiko konpromisoa

- Berrikuntza eta etengabeko hobekuntza
- Parte-hartzea eta talde-lana
- Profesionaltasuna

2017-2020 epealdian IVAPek honako balio hauek landu nahi ditu bereziki: berrikuntza, euskararen erabileraren normalizazioarekiko konpromisoa, efizientzia eta parte-hartzea, eta talde-lana. Era berean, azaldutako balioekin bat etorriko den lidergo-estiloa bultzatu nahi du.

EGITURA

HAUTAKETAKO ETA PRESTAKUNTZAKO ZUZENDARIORETZA

Imanol Uriguen

PRESTAKUNTZA ZERBITZUA	HAUTAKETA ZERBITZUA
------------------------	---------------------

KOORDINAZIOKO ETA KUDEAKETAKO IDAZKARITZA

Fulgen Aledo

ZERBITZU OROKORRAK		
Informatika	Dokumentazio-Gunea	Kalitatea eta etengabeko Hobekuntza
AZTERLAN ETA ARGITALPEN ZERBITZUA		EVETU

ZUZENDARITZA

Maite Iruretagoiena

EUSKARAKO ZUZENDARIORETZA

Garbiñe Doval

HIZKUNTZA PRESTAKUNTZA ETA NORMALIZAZIO ZERBITZUA			ITZULTZAILEEN ZERBITZU OFIZIALA	TERMINOLOGIA ZERBITZUA
Hizkuntza Prestakuntza	Ebaluazioa	Administrazio Hizkera	Itzulpen gintza eta interpretazioa	

ZUZENDARITZA

IVAPeko zuzendaria, besteak beste, erakundearen ordezkaria izango da, eta bertako langileen burua. Berak emango ditu egiaztagiriak, tituluak eta diplomak; gainera, gastuak baimendu eta ordainketak aginduko ditu.

KOORDINAZIOKO ETA KUDEAKETAKO IDAZKARITZA

Zerbitzu eta atal guztiak koordinatuko ditu, eta zuzendaria ordezkatu du hura ez dagoenean. Bere mendeko zuzenak dira Azterlan eta Argitalpen Zerbitzua, EVETU (Lurralde eta Hiri Ikasketarako Euskal Eskola) eta Zerbitzu Orokorrak.

HAUTAKETAKO ETA PRESTAKUNTZAKO ZUZENDARIODETZA

Bere egitekoa hautaketa eta prestakuntzari dagozkion lanak betetzea da. Horretarako, Hautaketa Zerbitzua eta Prestakuntza Zerbitzua ditu.

EUSKARAKO ZUZENDARIODETZA

Euskararen erabilera normalizatzea, itzulpengintza eta euskarazko administrazio-hizkera finkatzea. Horra zuzendariordetza horren eginkizunak. Hizkuntza Prestakuntza eta Normalizazio Zerbitzuak, Terminologia Zerbitzua eta IZO Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak osatzen dute zuzendariordetza hau.

PERTSONAK

IVAPen 128 pertsonak lan egiten dute, 90 emakumek eta 38 gizonek, modu honetan banatuta:

1. TAULA. IVAPeko pertsonak

Lanpostua	Emakumezko	Gizonezko	Guztira
Zuzendaria	1		1
Idazkari nagusia		1	1
Zuzendariordeak	1	1	2
Goi-kargudunaren idazkaria		1	1
Zerbitzuburuak	3	3	6
Arloburuak	4	4	8
Teknikariak	58	21	79
Administrazio-langileak	22	6	28
Mendekoak	1	1	2
Guztira	90	38	128

IVAPeko kideen % 72k parte hartzen du martxan dauden bederatzi batzordeetan, 25 prozesu-taldeetan edota lan-taldeetan.

LANTOKIAK ETA HELBIDEAK

Langile gehienek Gasteizko egoitza dute lantoki, Eusko Jaurlaritzaren egoitza nagusia (Lakua), alegia. Hala ere, herritarrek IVAPen beste hiru egoitza hauek ere eskueran dituzte haien kudeaketak egin ahal izateko: Bilbokoa, Donostiakoa eta Oñatikoa.

IVAP - Gasteizko egoitza

Donostia kalea 1
01010 Vitoria-Gasteiz

IVAP - Bilboko egoitza

Recalde zumarkalea 18, 1
48009 Bilbao

IVAP - Oñatiko egoitza

Unibertsitateko etorbidea
20560 Oñati

IVAP - Donostiako egoitza

San Bartolomé kalea 28
20007 Donostia

KUDEAKETA-SISTEMATIKA


IVAP 2001ean hasi zen Kudeaketa aurreratuaren kultura ezartzen. Orduan, zuzendaritzak apustua egin zuen erakunde osoa hartuko zuen etengabeko hobekuntza-proiektu baten alde. Garai hartan, EFQMrako ereduari jarraituz; orain, Euskaliteko Kudeaketa Aurreratuko Eredua (KAE) ispilu duela. Aipatu beharra dago, gainera, IVAPek, gaur egun, zuzenean laguntzen duela «Aurrerabide» Eusko Jaurlaritzako proiektua, Euskadiko administrazio orokorrean kudeaketa aurreratua ezartzeko proiektua, hain zuzen ere, non Institutua aitzindari eta erreferentea den.

2005etik lau urteko lau plan estrategiko onartu ditu IVAPek, urteko kudeaketa-planetan zabaltzen direnak. Eta planak burutzeko hausnarketa estrategikoa Estrategia Batzordean egiten da, non Zuzendaritza osoa kide den eta zuzendaria, hain zuzen ere, batzordeko arduraduna. Beraz, Zuzendaritzak hausnarketa-prozesu osoa bultzatzen eta bideratzen du. Hausnarketan, bestalde, parte hartzen dute Institutuko ebaluatzaileek, hausnarketa-taldeak eta kontraste-taldeak (azken hori IVAPeko 20 pertsona liderrek osatzen dute). Azkenik, esan behar da lankide guztiak parte hartzeko aukera izan dutela bai AMIAk aztertzen, bai azken dokumentuari ekarpenak egiten. Azken hausnarketa estrategikoan, 2016an, alegia, lider guztiak elkarrizketatu ziren, haien iritzia ezagutu nahian, erakundearen iraganaren ingurukoa, baita kudeaketaren etorkizunari buruzkoa ere.

Hauek dira Erakundeak burutu dituen aurrerapauso eta jarduera batzuk:

Estrategia

- Lau hausnarketa estrategiko (2004, 2008, 2012 eta 2016) eta dagozkien lau urteko plan estrategikoak. Gaurkoa 2017-2020 Plan Estrategikoa da.
- Urteroko kudeaketa-planak, plan estrategikoen hedapena.
- EFQM kalitate-eredu europarraren arabera, lau autoebaluazio.
- KAE Kudeaketa Aurreratuaren Ereduaren arabera, autoebaluazio bat.
- EFQM kalitate-eredu europarraren arabera, kanpoko ebaluazio bat: zilarrezko Q.
- Kudeaketa Aurreratuaren Ereduarekiko kanpo-ebaluazioa eta Zilarrezko A aitortpena (Garatua I).



IVAPeko sei zerbitzu-kartak urtero ebaluatzen dira

Bezeroak

- Zerbitzu-kartak: erakundeak sei karta ditu, urtero berrikusten ditugu eta bi urtez behin ebaluatzen ditu Q-epea kudeaketa aurreratuaren aldeko euskal erakunde publikoen sareko ebaluatzaileen Klubak, non IVAPek parte hartze aktiboa duen 2006tik. Hauek dira zerbitzuetako kartak:
 - Hautaketa: hiritarrei zuzenduta.
 - Hautaketa: administrazioei zuzenduta.
 - IZO, Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala.
 - Prestakuntza.
 - Liburutegia/Dokumentazio-gunea.
 - Hizkuntza-eskakizunak ebaluatzeko karta.
- Zerbitzuen katalogoa: urtero berrikusten dugu.

- Bezeroen beharrak eta espektatibak ezagutzeko hiru azterketa (2008an, 2012an eta 2017an).
- Bezero instituzionalen gogobetetasuna neurtu da 2005, 2007, 2010, 2012 eta 2015 urteetan, inkesten bidez. Eusko Jaurlaritzako sailak, foru diputazioak, udalak eta hainbat erakunde publiko izan dira IVAPeko zerbitzuak eskatu dituztenak edo produkturen bat jaso dutenak, hala nola Osakidetza, Arartekoa, Eusko Legebiltzarra, Ertzaintza, Lanbide... 2017an, seigarren aldiz neurtu genuen bezero horien gogobetetasuna, oraingo honetan bisita bidez. Bezeroen artean, lagin batengana hurbildu gara eta, ebaluazioarekin batera, haien beharrak ezagutzeko aukera izan dugu.
- Zuzeneko erabiltzaileak diren bezeroen gogobetetasuna neurtu da, IVAPeko zerbitzuak jaso dituzten euskal administrazioetako langileak izaten baitira (ikastaroetan, jardunaldietan eta abarretan parte-hartzaile) eta kasu zehatz batzuetan herritar guztiak (langileak hautatzeko probetan, jardunaldi jakin batzuetan...). Horiei guztiei jasotako zerbitzuaren gogobetetasuna adierazteko inkesta betetzeko eskatzen diegu.
- IVAPeko langilea Erakundeko zeharkako zerbitzuen bezeroa izan den kasuetan, barne-bezeroaren gogobetetasuna neurtu dugu. 2018an, bigarren aldiz, hainbat zerbitzuren hartzaile bezala, hala nola ordutegi-kontrola, itzulpengintza, laguntza juridikoa eta Prestaivap ebaluatzeko aukera izan dute IVAPeko langileek.

Pertsonak

- Harrera eta agurra egiteko plana.
- Prestaivap: Institutuko pertsonen prestakuntza plana. IVAPeko langileen eskarrietatik eta behar-diagnostikotik abiatuta lantzen den urteroko plana da.
- IVAPeko kudeaketa aurreratuaren ereduaren urteko aurkezpen-saioak.
- IVAPeko ebaluatzaileen taldea sortzea, eta prestakuntzaren planifikazioa eta lankidetzak Kudeaketa aurreratuaren ereduaren Euskaliteko ebaluatzaileen Klubarekin eta Eusko Jaurlaritzako Kudeaketa aurreratuaren euskal eredia den Aurrerabide proiektuarekin.
- IVAPeko Zerbitzuen kartetako ebaluatzaileen taldea abian jartzea eta Q-epeako Zerbitzu-kartak ebaluatzeko taldearekin lankidetzak finkatzea.
- 25 prozesu-talde, kudeaketarako, jarduerarako eta laguntzarako bederatzi batzorde-tan banatuta, «Pertsonak» batzordean, besteak beste.
- Lantalde egonkorak edo proiektuekin lotutakoak.
- Bi urtez behin, IVAPeko pertsonen gogobetetasunaren neurketa. 2018an, seigarren aldiz egin genuen. Ostean, hobekuntza-plana egiten dugu beti.
- Aldizka berritzen den barne-komunikaziorako mapa.
- Lidergoa: definizioa eta kompetentziak berrikustea. Prestakuntza eta 360 graduko ebaluazioa.

Berrikuntza

- Prestakuntza: laguntzeko, prestatzeko eta aholkuak emateko sistematika (SAC, prozedurari buruzko eskuliburuak).
- Barne-bezeroaren gogobetetasunaren ebaluazioa.
- Zeharkako prozesu-mapa.

Gizartea

- Konpromiso-diplomak 2009 eta 2011n.
- Aintzatespenak, zuzenak eta prentsakoak.
- Bekak, laguntzak eta ikerketa-lanak.
- Ingurumenarekiko konpromisoa.
- Gobernu irekia («Open data»): datu berrerabilgarrien erakusketa publikoa (itzulpen-memoriak, beste administrazio batzuen lan-eskaintza publikoak...).
- IVAPek gizartean duen konpromisoaren lehenengo neurketa.

Emaitzak

- Aginte-taula Integrala zeina plan estrategiko bakoitzean berrikusten den. Adierazle estrategikoen urteroko berrikusketa.

Azkenik, nabarmentzekoa da IVAPeko gaur egungo prozesu-mapa, Institutuaren jardura oinarritzen den zerbitzu eta produktuetara egokituta; zehazki, bere zerbitzuak jasotzen dituzten administrazioen eta hiritarren inguruan egituratutako mapa. Izan ere, aurrerapen handia da aurreko mapekin alderatuz, non organigrama ardatz nagusia zen.

AGINTE-TAULA INTEGRALA

2021-2024 Plan Estrategikoak bost lan-lerro eta helburu estrategiko batzuk zehazten ditu. Aginte-taula integrala (ATI) da IVAPek planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko erabiltzen duen kudeaketa-tresna, eta lan-lerro horiekin eta helburu estrategikoekin lerrokatutako adierazle-multzo batek osatzen du. 2021-2024 aldirako ATIa 2020an egindako hausnarketa estrategikoaren emaitza da.

3.

KUDEAKETA ARLOKO MUGARRI ETA LORPEN GARRANTZITSUENAK

AURREKONTUA ETA JARDUERARI BURUZKO DATU NAGUSIAK

- Aurrekontua: 20.107.700 €
- 15.280 parte-hartzaile prestakuntza-jardueretan (Prestakuntza arloa, EVETU eta Hizkuntza-prestakuntza arloa)
- Prestakuntzarako dirulaguntzen programa, erakunde publikoetako 78.788 pertsonentzat
- 157 parte-hartze 61 erakundeetako hautaketa-epaimahaietan
- Guztira, 18.622.014 hitz itzuli edo berrikusi dira
- 14.898 harpidedun, *Administrazioa Euskaraz* aldizkarian
- 100.845 harpidedun, Euskal Autonomia Erkidegoko lan-eskaintza publikoei buruzko informazioa jasotzen dutenak
- 21 argitalpen (6 liburu eta 15 aldizkari-ale (*Administrazioa Euskaraz*, *Herri Arduralaritzazko Euskal Aldizkaria* eta *Pertsonak* eta *Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkaria*))
- 284 funtzionariok egiaztatu dute hizkuntza-eskakizunen bat
- 29.815 liburu eta aldizkari espezializatu liburutegian
- 4.815.205 bisita webgunean

2021-2024 ALDIRAKO PLAN ESTRATEGIKOA

Berriro ere, bostgarren plan estrategikoa aurreko 2017-2020 Plan Estrategikoaren ebaluazioz ondorioztatutako emaitzen fruitua da, batetik, eta IVAPEk 2020an egin zuen hausnarketa estrategikoarena, bestetik.

2021-2024 Plan Estrategikoak berrikusi eta eguneratu egin ditu IVAPen Misioa, Ikuskera eta Balioak, eta bost lan-lerro hauek finkatu ditu:

- Erreferente publikoa
- Erakunde eraldatzailea
- Pertsonak oinarri
- Bezeroak helburu
- Gizarteari begira

Hausnarketa estrategikoa IVAPeko pertsonen parte-hartze aktiboan oinarritu da, une zehatzetan, hala nola AMIAk aztertu, Misioa, Ikuskera eta Balioak berrikusi eta azken dokumentuari ekarpenak egiteko aukera izan dute. Parte-hartzea zuzendaritza-taldeak uneoro zuzendutako hainbat forotan antolatu da.

KUDEAKETA-PLANA

2020ko Kudeaketa-planak 2017-2020ko Plan Estrategikoan zehaztutako helburuak hedatzen eta lortzen laguntzen du. Kudeaketa-planean, batetik, 2019ko ekitaldiko kudeaketaren balantzea egin zen eta, bestetik, 2020. urterako planifikatutako helburuak eta ekintzak bildu ziren. Halaber, kudeaketa-plan honek, Aginte-taula Integralean ezarritako helburuen betetze-mailaren ebaluazioa biltzeaz gain, 2020. urteari zegozkion helburuak ezarri zituen.

EBALUAZIOAK

Urtero bezala, 2020an ere, IVAPek zerbitzu-kartak ebaluatzeko eskaera egin dio Q-epea kudeaketa aurreratuaren konpromisoa duten Euskadiko erakunde publikoek osatutako taldeari, IVAP bertako kidea baita 2006tik. Q-epeak berezko metodologia sortu du erakunde laguntzaileen zerbitzu-kartak ebaluatzeko eta, horren bidez, zerbitzu-kartaren bi urtez behineko ebaluazio objektiboa, errepikagarria eta independentea bermatzen du. 2020an, Zerbitzu-karten «Q-epea» egiaztagiri bana eman zien IVAPeko lau kartari: Hautaketa Zerbitzuko Administrazioei zuzendutakoari eta herritarrentzat duen kartari; IZO Itzultzaile zerbitzu ofizialekoari eta, azkenik, euskarazko Hizkuntza-eskakizunak ebaluatzeko Zerbitzuen kartari, lehen aldiz.



2020an, Hautaketako zerbitzukoek «Q-epea» diplomak jaso zituzten

AITORPENAK ETA ESKER ONAK

2020an, 25 aitorten erregistratu ditu IVAPek eta horietako hamar kanpoko pertsonek edo erakundeek eman zizkioten Institutuari, Dokumentazio Zentroak emandako zerbitzuagatik, adibidez, edo *Administrazio-prozedura eta sektore publikoaren araubide juridikoa berrikuntza teknologikoaren ikuspegitik jardunaldiak* lineako formatuan antolatzeagatik. Besteak, IVAPek egindako aitorten formalak izan dira, erakundeak modu sistematizatuan egiten dituen aitortenak, erakundearen eta langileen arteko harremana indartzeko asmoz, portaerek eta lorpenek helburu estrategikoekin bat egiteko estrategiarren barruan. Zehazki, dedikazio berezia, jarduera bikaina edota polibalentzia eta malgutasun funtzionala izateagatik egin dira aipatu aitorten formal horiek. Pandemiak eragindako egoerak eragotzi egin zuen errekonozimendu formaleko ekitaldia antolatzea Maite Imazi IVAPen 25 urte bete zituelako eta Lore Azkarateri jubilatu zelako.

4.

ZERBITZUAK ETA PRODUKTUAK

PRESTAKUNTZA

PRESTAKUNTZA OROKORRA 2020

Prestakuntza-programak eta planak

- Prestakuntza-modalitatearen arabera:
 - *Onlineko* prestakuntza
 - Aurrez aurreko prestakuntza
 - KnowInn programa: prestakuntza-ekintza (proiektuak ezartzeko prozesuekin batera doan prestakuntza)
- Irismenaren arabera:
 - Orokorrak edo zeharkakoak
 - Administrazio batek edo administrazio-unitate batek berezkoak dituenak.

Prestakuntza-beharren diagnostikoak

Administrazio edo erakunde publiko batek eskatuta, kolektiboaren prestakuntza-beharrak aztertzen dira metodologia desberdinak erabiliz.

Prestakuntzaren ebaluazioa

Ikaskuntzaren ebaluazioa egiten da, probetxua ebaluatzeko estandarrak aplikatuz.

Transferentziaren ebaluazioa: prestakuntzaren bitartez eskuratutako ezagupenak eta tre-beziak lanpostura transferitu diren ebaluatzea.

Prestakuntza-ekintzen homologazioa

Homologazio aginduan oinarrituta, ikastaroa bera ziurtatzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan garapen profesionala lantzeko prestakuntza-programa

Programa honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan lan egiten dutenen garapen profesionala bultzatzeko beharrezko prestakuntza bideratzea.

Hau da Prestakuntza-programaren xedea: Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek herritarrei ematen dizkieten zerbitzuak etengabe hobetzea.

2. TAULA. Prestakuntzaren programazioa eta jarraipena (2017-2020)

ADIERAZLEAK	2017			2018			2019			2020		
Aurreikusitako prestakuntza ekintza kopurua	686			704			692			447		
Egindako ikastaro kopurua	659			657			660			379		
Ikastaroen betetze-maila (%)	96,1			90,67			95,38			78,89		
Matrikula kopurua	14.214			13.148			13.649			11.474		
	E=2.702	G=1.031	DG*=10.481	E=1.224	G=2.997	DG*=8.927	E=3.573	G=1.453	DG*=8.623	E=3.454	G=1.350	DG*=6.670
Ikasleen asebetetzearen adierazle orokorra	7,93			8,00			8,2			8,2		
Irakasleekiko asebetetzearen adierazle orokorra	8,37			8,5			8,7			8,7		

* E= emakume / G= gizon / DG= daturik gabe

3. TAULA. Prestakuntzaren ebaluazioa

Helburuen lortzea duten prestakuntza-ekintzen kopurua	361
Matrikula kopuru osoaren gaineko aprobetxamendu-ziurtagirien ehunekoa	89
Matrikula kopuru osoaren gaineko aprobetxamendu-ziurtagirien ehunekoa (<i>online</i> eta ikastaro mistoetan)	82

4. TAULA. Homologazioa

Homologazio-espediente kopurua	33
Behin-behineko homologazioa duten prestakuntza-ekintzen ehunekoa	100
Behin betiko homologazioa duten prestakuntza-ekintzen ehunekoa	42
Erakunde eskatzaile kopurua	8

5. TAULA. Garapen profesionala lantzeko prestakuntza-programa (2017-2020)

Erakundeak	Prestakuntza-planak				Langileak*			
	2017	2018	2019	2020	2017	2018	2019	2020
Udalak	26	30	27	21	10.325	11.129	11.440	10.012
Foru Aldundiak	3	3	3	3	8.304	8.240	8.701	8.831
EHU/UPV	1	1	1	1	1.547	1.547	1.547	1.547
Eusko Jaurlaritzaren sailak	5	4	3	0	1.697	1.463	1.482	–
Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomoak	4	4	4	0	1.138	1.120	1.119	–
Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia	1	1	1	1	11.950	11.950	11.950	11.950
Osakidetza	1	1	1	1	26.400	26.400	26.400	26.400
Irakasleen prestakuntza	1	1	1	1	20.048	20.048	20.048	20.048
Guztira	42	45	41	28	81.409	81.897	82.687	78.788

* Prestakuntza-planetako hartzaileak

EVETU: HIRIGINTZA ETA INGURUMENARI BURUZKO PRESTAKUNTZA

Modulu bidezko ikastaroak: «Hirigintza eta Lurralde Ikasketak ikastaroa»

Ikastaroa honela dago egituratuta:

1. Sei ikasketa-modulu teoriko-praktikoak egitea (700 ordu); deialdi bakar batean egin ahal dira guztiak, edo moduluka banatutako deialdietan. Bertaratze- eta aprobetxamendu-baldintzak betez gero (gutxienez % 80ean bertaratzea, ebaluazio-azterketa eta lanak gainditzea), egindako modulu bakoitzaren aprobetxamendu-egiaztagiria ematen da.
2. Hirigintzako Goi Mailako Ikastaroa eta banakako ikerketa-lana egitea.
3. Aukerako praktikak, erakunde nahiz enpresetan (300 ordu).

Betekizun guztiak gaindituta, IVAPek Hirigintzako Diploma ematen du.

2020an, bi jarduera egin dira. Batetik, 2019-2020 ikasturtean hasi zen «XLV. (45) Hirigintza eta Lurralde Ikasketak Ikastaroa» amaitu da (700 orduko iraupena eta 300 orduko praktikaldia). Ikastaro horretako bost modulu egin dira, Bilbon hiru (IV, V eta VI) eta III eta IV moduluetakoa bigarren edizioak Donostian. Bestetik, «XLVI.(46) Hirigintza eta Lurralde Ikasketak Ikastaroa» hasi da (2020-2021 ikasturtea, 700 orduko iraupena), eta hiru modulu egin dira (I, II, III).

Matrikula-bekak: bost beken deialdia egin da «XLVI.(46) Hirigintza eta Lurralde Ikasketak Ikastaroa» (2020-2021) egiteko eta bi esleitu dira.

Praktikak: XLV. (45) Hirigintza eta Lurralde Ikasketak Ikastaroa» (2019-2020) egin duten ikasleek 300 orduko hautazko praktikak egin ahal izan dituzte erakundeetan zein enpresetan. Zortzi ikasle aritu dira praktiketan (lau emakume eta lau gizon, arkitektoak guztiak), eta udal haueetan egin dituzte: Arrankudiaga, Durango, Aiara, Gordexola, Alonsotegi, Urnieta, Trapagaran eta Leioa.

Ezin izan zaie erantzun eskari guztiei, ez zegoen-eta nahikoa ikaslerik.

Ikastaro monografikoak

Hirigintzari, lurralde-antolamenduari eta ingurumenari buruzko ikastaro monografikoak eta jardunaldiak egin dira:

- Jornadas sobre novedades en Urbanismo 2020 (Zoom plataformaren bidez)
- Curso Superior de Urbanismo (Bilbo)
- Valoraciones Urbanísticas (Bilbo)
- Curso Básico de Derecho urbanístico en la CAPV (Bilbo)
- Hacienda Local, especial referencia al urbanismo (Bi edizio: Bilbon bat eta bestea Zoom plataformaren bidez)
- Curso sobre Directrices de Ordenación Territorial (Bilbo)

6. TAULA. EVETUKO datuak 2020 *

	Prestakuntza-ekintzak	Helburuak zehaztuta dituzten prestakuntza-ekintzak	Matrikulak, guztira	Zenbat emakume matrikulatuta	Eskainitako ordu-kopurua	Ziurtagiriaren %
Modulu bidezko ikastaroak. Bilbo	6	6	130	70	700	100
Modulu bidezko ikastaroak. Donostia	2	2	40	21	276	99
Ikastaro monografikoak	7	5	122	82	128	99
Guztira	15	13	292	173	1.105	99

* Datuak urte naturalean

6. TAULA. EVETUKO datuak 2019*

	Prestakuntza-ekintzak	Helburuak zehaztuta dituzten prestakuntza-ekintzak	Matrikulak, guztira	Zenbat emakume matrikulatuta	Eskainitako ordu-kopurua	Ziurtagiriaren %
Modulu bidezko ikastaroak. Bilbo	6	6	174	102	700	98
Modulu bidezko ikastaroak. Donostia	1	1	20	11	146	100
Ikastaro monografikoak	11	9	262	156	254	92
Guztira	18	16	456	269	1.100	96,66

* Datuak urte naturalean

6. TAULA. EVETUKO datuak 2018*

	Prestakuntza-ekintzak	Helburuak zehaztuta dituzten prestakuntza-ekintzak	Matrikulak, guztira	Zenbat emakume matrikulatuta	Eskainitako ordu-kopurua	Ziurtagiriaren %
Modulu bidezko ikastaroak. Bilbo	6	6	173	107	700	100
Modulu bidezko ikastaroak. Donostia	2	2	36	25	276	100
Ikastaro monografikoak	10	8	195	116	261	90
Guztira	18	16	404	148	1.237	95

* Datuak urte naturalean

6. TAULA. EVETUKO datuak 2017*

	Prestakuntza- ekintzak	Helburuak zehaztuta dituzten prestakuntza- ekintzak	Matrikulak, guztira	Zenbat emakume matrikulatuta	Eskainitako ordu- kopurua	Ziurtagirien %
Modulu bidezko ikastaroak	6	6	236	126	700	97,45
Ikastaro monografikoak	7	4	254	123	133	83,46
Guztira	13	10	490	249	833	90,45

* Datuak urte naturalean

HIZKUNTZA-PRESTAKUNTZA**Hizkuntza-eskakizunak lortzera bideratutako euskara-ikastaroak**

- Oinarrizko ikastaroak, 3. hizkuntza-eskakizunaren gaitasun mailara artekoak:
 - Egunean bi zein bost ordutako ikastaroak dira. A1etik C1 mailara artekoak. Urrian hasi eta maiatz-ekainera bitartekoak; horrez gain, udako ikastaroak ere eskaintzen ditugu.
 - Aurrez aurrekoak nahiz autoikaskuntzakoak izaten dira.
- Goi mailakoak, 4. hizkuntza-eskakizuna prestatzeko ikastaroak:
 - Aurrez aurrekoak nahiz autoikaskuntzakoak izaten dira, astean hiru egunetan eta C2 mailakoak.

Deialdi bakoitzean zerbitzu zuzendariak edo erakundeko arduradunak baimendutako modulu eska dezake langileak. IVAPek eskainitako modulu horiek lanorduetan edo lanorduz kanpo egin daitezke. Hala ere, IVAPekin hitzarmena duten erakundeetako langileek autoikaskuntza lanorduz kanpo bakarrik egin dezakete. Matrikula orriaren bidez lanorduetan edo lanorduz kanpo ikasiko duen langilea HABEk homologatutako edozein euskaltegitan matrikula daiteke.

Udaletan eta mankomunitateetan ordezkapenak egiteko dirulaguntzak

Euskalduntzeko ikastaroetara joaten den langileari ordezkia jartzen baldin badiote, azken honen kontratazioaren kostua ordaintzeko dirulaguntzak ematen dizkie IVAPek hizkuntza-prestakuntza eta normalizazioaren arloan hitzarmena izenpetuta daukaten toki-administrazioei.

ELEBI programa

ELEBI programak berriazko laguntza eskaintzen die erabilera-planean dauden Eusko Jaurlaritzako langileei. Prestakuntza hori ahozko jarduna zein idatzizko dokumentuak euskaraz egin behar dituzten langileentzat da, eta laneko jardunaren arabera, antzeko interes komunikatiboak dituztenekin osatzen dira mintegiak: dirulaguntzak kudeatzen dituzten langileak, lege-aholkulariak, estatistikariak, web-kudeatzaileak eta harrera postuetan dauden langileak.

Mintegi horiek sail bereko partaideek edo sailartekoek osatzen dituzte. Alegia, sail ezberdinetakoak ere izan daitezke partaideak, baldin eta lan eginkizun berberak badiuzte.

Oro har, mintegietan lau eta sei partaide bitarteko lan-taldeak osatzen dira, astean ordu eta erdiz, batez beste. Taldeko prestakuntzaz gain, langile bakoitzak hilean bi orduko tutoretza pertsonalizatua izaten du tutorearekin.

Tutoreekin batera, egitasmoaren beste eragileak sailtako normalkuntzako teknikariak dira, IVAPekin lankidetzan aritzen baitira mintegiak antolatzeko. Izan ere, beraiek eza-gutzen dituzte ondoen langileen benetako behar komunikatiboak.

Lan-jardunari lotutako berriazko hizkuntza prestakuntza

Euskara lan hizkuntza izateko helburua betetzeari begira antolatzen da berriazko hizkuntza prestakuntza.

Euskararen erabileran eragiteko xedez eskaintzen dira bai aurrez aurreko, bai lineako eta baita jardun biko ikastaroak ere, administrazioko langileentzat (Ikusi 11. taula).

IDAZLAGUN programa

Eusko Jaurlaritzako langileek sortutako euskarazko idazkiak zuzentzen dituzte idazlagunek, bai eta testuak sortzean izan ditzaketen zalantzak argitu ere. Ohiko zuzenketa izan beharrean, zuzenketa didaktizatua egiten dute, alegia, zuzenketekin batera, oharren bidezko azalpenak txertatzen dituzte. Sarritan, testuan sakontzeko baliabideak ere ematen dizkiote erabiltzaileari.

Zuzenketa maila eta azalpenak erabiltzailearen hizkuntza mailara egokitzen dira. Ez da hiperzuzenketarik egiten: zuzentasuna, koherentzia eta egokitasuna bermatzen bada ere, jatorrian idatzitakoa ahal den gehien errespetatzen saiatzen dira.

Zalantzak argitzeko zenbait bitarteko eskaini ohi dira: posta elektronikoa, telefonoa eta aurrez aurreko arreta. Zuzenketak oso azkar bideratzen dira, betiere testuaren luzeraren arabera, baina eskaera gehienak egunean bertan zuzentzen dira.

7. TAULA. Idazlagun programa

Erabiltzaile kopurua	163
Zuzenketa eskaera	847
Zuzendutako hitz-kopurua	615.291
Kontsultak	79
Erabiltzaileen gogobetetze indizea	9,23



Idazlagun zerbitzuak zuzenketa didaktizatua egiten du

8. TAULA. Hizkuntza-prestakuntzako ikasleak (2019/2020 ikasturtea)

	Astean, 10 ordu	25 ordu, Barnetegia	Autoikaskuntza	4. HE	Udako ikastaroak	Guztira
Eusko Jaurlaritza	257	69	83	82	60	551
Foru administrazioak	118	18	14	30	20	200
Toki administrazioak	292	13	62	43	59	469
Osakidetza	1.037	95	226	13	147	1.518
UPV/EHU	32	16	2	2	3	55
Beste batzuk	32	3	8	10	12	65
Guztira	1.768	214	395	180	301	2.858* E=2.195 G=663

* E= emakume / G= gizon

9. TAULA. Toki-administrazioetako ordezkapenentarako dirulaguntzak

Diru-laguntza kopurua guztira	16.015
Hitzarmena sinatuta duten erakundeak guztira	161

10. TAULA. ELEBI

Mintegi kopurua	6
Langile kopurua	30

11. TAULA. Hizkuntza-prestakuntza, euskararen erabilera-planen barruan daudenentzat

	Taldeak	Ikasleak
A1 mailako birziklatze ikastaroa	1	3
2.HE: Birziklatze ikastaroa	2	17
2.HE: Ahozko birziklatzea	1	8
3.HE: Birziklatze ikastaroa	3	27
Aurrez aurreko eta telefono bidezko harrera, oharrak eta mezu elektronikoak	2	22
Bileren kudeaketa eta hizkuntza-estrategiak	2	13
Curso de lenguaje administrativo	2	25
Esaldi-egitura argiaren bila	1	12
Euskaltzaindiaren web-orria	1	8
Euskara ingurune digitalean	2	13
Euskaraz ahaldundu	1	12
Ikerketa soziolinguistikoa: metodologia nagusiak	1	6
Jendurrean efikaziaz hitz egitea	2	19
Soziolinguistika: aldagai nagusiak	1	8
20 aholku hizkera juridikoa hobetzeko	1	15
Administrazioan komunikazioa erraztu	3	36
Bilera akta eta txostena	1	21
Bilera-deia, eskabidea eta ziurtagiria	1	15
Cómo escribir para la web	2	24
Euskaltzaindiaren arauak	4	42
Gutuna eta ofizioa	2	17

	Taldeak	Ikasleak
Hizkera Juridikoa	1	16
Hizkuntza inklusiboa	3	53
Lenguaje inclusivo	3	57
Mezu elektronikoko egokiak idatzi	5	62
Testuak zuzentzeko moduez	1	7
Weberako nola idatzi	1	8
2.HE: Idatzizko azterketa prestatzeko ikastaroa	1	6
3.HE: Idatzizko azterketa prestatzeko ikastaroa	4	41
4.HE: Idatzizko azterketa prestatzeko ikastaroa	5	50
2.HE: Ahozko azterketa prestatzeko ikastaroa	1	5
3.HE: Ahozko azterketa prestatzeko ikastaroa	2	14
4.HE: Ahozko azterketa prestatzeko ikastaroa	2	14
Administrazioan nola idatzi	1	5
Ahozko jarduna nola hobetu azterketetatik harantzago	1	11
Lenguaje claro en la publicación de servicios	1	12
Guztira	68	724

PERTSONEN HAUTAKETA ETA KOMPETENTZIEN EBALUAZIOA

Epaimahaietan parte hartzea

Euskal Funtzio Publikoaren Legeak araututakoa betez, IVAPek kide titular eta ordezkoko bana izendatzen ditu euskal administrazio publikoetako funtzionario edo lan-kontratuko langile finko izateko deitzen diren hautaketa-prozesuak aurrera eramaten dituzten epaimahaietan parte hartzeko.

Probak prestatzea edota zuzentzea

Zenbait administrazioi eskatuta, hautaketa-prozesuetako probak diseinatzen, aplikatzen eta zuzentzen ditu IVAPek.

Lankidetzeta eta aholkularitza hautaketa-prozesuetan

- Hautaketa-prozesuari ekin aurretik, IVAPek laguntza- eta aholkularitza-lana eskaintzen du (oinarriak aztertu, ikasgaiak taxutu...); baita prozesuan zehar ere (logistika, lokalen kudeaketa, probak...).

- Informazioa bidaltzea (oinarrien ereduak, txosten juridikoak, eta lan-poltsetan lanerako prest dauden langileen izenak).

Enplegu publikoko eskaintzak, prozesu handiak

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko funtzionario edo lan-kontratuko langile finkoa izateko antolatzen diren hautaketa-prozesuen kudeaketa egiten du IVAPek.

Lan-poltsak osatzea

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren aldi baterako langile-beharrei erantzuna emateko lan-poltsak eratzeko hautaketa-prozesuen kudeaketa egiten du IVAPek.

Lan-eskaintza publikoei buruzko informazioa ematea, eta informazioaren harpidedun egiteko aukera ematea

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek egindako enplegu-eskaintzei buruzko informazio egoki eta eguneratua emateaz eta horren gaineko azken berriak Interneten bidez jaso ahal izateko harpidetza egiteko aukera eskaintzeaz arduratzen da IVAP.

Proba psikoteknikoak eta elkarrizketak egitea

Lanpostuen egokitasuna ebaluatzeko probak taxutzea, aplikatzea eta zuzentzea edo euren ezaugarri tekniko eta pertsonaletara doitzeaz arduratzen da IVAP: elkarrizketak, proba psikoteknikoak eta abar.

12. TAULA. Hautaketa-prozesuetako datuak (2017-2020)

	2017	2018	2019	2020
Epaimahai kalifikatzaileetan parte-hartzeak (prozesu kopurua)	224	227	225	157
Epaimahai kalifikatzaileetan parte-hartzeak (erakunde kopurua)	63	76	71	61
Epaimahai arruntetarako izendapenak (titularrak eta ordezkioak)	328	322	362	258
Euskara probarako izendapenak (titularrak eta ordezkioak)	310	260	284	218

13. TAULA. Lankidetzeta-motak (2017-2020)

	2017		2018		2019		2020	
Lankidetzeta jaso duten erakunde publikoak	52		59		55		59	
Azterketak prestatzea (test eta garapen erakoak)	58	% 25,11	152 ¹	% 47,80	84 ²	% 34,85	57	% 28,50
Irakurgailu optikoz azterketak zuzentzea	38	% 16,45	37	% 11,64	38	% 15,77	36	% 18,00
Proba psikoteknikoak eta elkarriketak egitea	113	% 48,92	97	% 30,50	72 ³	% 29,88	69	% 34,50
Bestelako aholkularitzak (oinarriak aztertzea, txostenak, aholkularitza orokorra...)	22	% 9,52	32	% 10,06	47	% 19,50	38	% 19,00
Lan-poltsetako zerrendak bidaltzeko eskaerak	277		«+/- 450»		492		458	


¹ Osakidetzakoak barne (89)

² Osakidetzakoak barne (26)

³ Nahiz eta prozesuen kopurua jaitsi, izangaien kopurua asko igo da

14. TAULA. Enplegu publikoko eskaintzak (2017-2020)

	2017	2018	2019	2020
Lan-poltsak handitzeko prozesu kopurua	8	0	6	1
Lan-eskaintzetarako harpidedunak	85.125	92.571	97.790	100.845



Hautaketa prozesu baterako aretoa

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK

Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko ohiko deialdiak

Ohiko deialdiak sei hilabetean behin antolatzen ditu IVAPek Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako langileentzat. Horrezaz gainera, Osakidetzako bi deialdiak kudeatzen ditu IVAPek, kudeaketa-gomendioaren bitartez. Hala ere, 2020 urtean, Covid-19ak eragindako alarma-egoera eta konfinamenduak direla eta, lehenengo deialdia bertan behera geratu zen, ezinezkoa izan baitzen urtearen lehenengo seihilekoan deialdi osoa antolatzea; beraz, 2020an ohiko deialdi bakarra egin zen, IVAPen zein Osakidetzan. Hauek dira 2020an egindako deialdien emaitza orokorrak.

15. TAULA. Emaitza orokorrak

Deituak	Aurkeztutakoak		Gainditutakoak	
5.351 E= 1.750/G= 1.266/DG= 2.335	2.171 E= 840/G= 524/DG= 807	%40,05	170 E= 65/G= 32/DG= 73	% 7,80

* E= emakume / G= gizon / DG= daturik gabe

16. TAULA. Emaitza orokorrak deialdiko

Deialdia	Aurkeztutakoak	Gainditutakoak
Lehen deialdia (IVAPekoa eta Osakidetzakoa)	Bertan behera	Bertan behera
Bigarren deialdia (IVAPekoa eta Osakidetzakoa)	2.171 E= 840/G= 524/DG= 807	170 (%7,80) E= 65/G= 32/DG= 73

* E= emakume / G= gizon / DG= daturik gabe

Ohiko deialdien azterketak egiteko egunak

2020ko bigarren deialdiko azterketak: azterketa idatzia irailaren 19an egin zen eta ahozko azterketak azaroaren 5ean eta 6an.



Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdia

Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdi bateratuak

Administrazio Publikoko erakundeek (udalak, foru aldundiak...) lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuak deitzen dituztenean, IVAPi eskatzen diote hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probak egiteko eta zuzentzeko.

Hautaketa-prozesuotako hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko, deialdi bateratuak antolatu dituzte IVAPek, bat edo bi hilean. Eraginkortasunari begira, hainbat administraziori edo hautaketa-prozesuri lotutako hautagaiek hartzen dute parte deialdi berean. 2020 urtearen lehenengo seihilekoan aurreikusita zeuden deialdi bateratu batzuk bertan behera geratu ziren, Covid-19ak eragindako alarma-egoera eta konfinamenduak direla eta.

17. TAULA. Deialdi bateratuak

Lurraldea	Deialdi kopurua	Deitutakoak	Aurkeztutakoak	Gainditutakoak
Araba	4	658 E= 117/G= 82/DG= 459	329 (% 50) E= 80/G= 45/DG= 204	55 (%16,71) E= 3/G= 4/DG= 48
Bizkaia	3			
Gipuzkoa	2			

* E= emakume / G= gizon / DG= daturik gabe

2020an, deialdi orokor zein bateratuen bidez, 225 azterketarik egiaztatu dute hizkuntza-eskakizunen bat.

Ohiko deialdiez eta deialdi bateratuez gainera, 2020an berriazko deialdi batean ere aplikatu dira hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probak: Ertzaintzaren 29. promozioeko EPEn eta Udaltzainen deialdi bateratuan. Deialdi honetan, 464 hautagaik parte hartu dute eta 59k gainditu dute (% 12,71). Hortaz, guztira, 284 azterketari dira 2020an hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatu dutenak.

AZTERLAN ETA IKERKUNTZAREN SUSTAPENA

IKERKETARAKO LAGUNTZAK

Administrazio Publikoarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gai batzuei buruzko ikerlanak egiteko deialdia diseinatzea eta kudeatzea. Deialdian aurkeztutako azterketa eta ikerlanetan aipatzen diren gaiak jorra ditzakete hainbat ikerkuntza ikuspuntutik, eta Euskal Autonomia Erkidegoko instituzio eta administrazio publikoen jardunaren arloarekin lotura izan behar dute.

IKERKETA SARIAK

Jesús María Leizaola sarirako deialdia diseinatzea eta kudeatzea, Euskal Autonomia Erkidegoarekin zerikusia izanik edo horren azterketarako eta sakontzerako balioa izanik, hainbat aztertze eta ikerkuntza ikuspuntutatik egindako ikerlanetarako.

LEGE ETA ANTOLAKUNTZA ARLOKO AHOLKULARITZA LANAK

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak antolatzearekin eta hobetzearekin zerikusia duten gaien buruz eskatu dizkiguten azterlanak eta txostenak egitea, aholku-eskeei erantzutea eta gai horiei buruzko arauen aurre-egitasmoak prestatzea.

HERRI ARDURALARITZAZKO EUSKAL ALDIZKARIA

Herri Arduralaritzazko Euskal Aldizkariaren idazkaritza teknikoaren kudeaketa.

PERTSONAK ETA ANTOLAKUNDE PUBLIKOAK KUDEATZEKO EUSKAL ALDIZKARIA

Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkariaren idazkaritza teknikoaren kudeaketa.

18. TAULA. Ikerketa-lanak eta laguntzak

<p>Lanak egiteko esleitutako laguntzak. Deialdia: 2020-2021</p>	<p>««La mujer víctima de violencia: análisis multidisciplinar del ordenamiento jurídico español y europeo a la luz del Convenio de Estambul». (Eneko Echeverría Bereciartua, José Francisco Etxeberria Guridi, Katixa Etxebarria Estankona, Enara Garro Carrera, Jon Mirena Landa Gorostiza, Dunia Marinas Suárez, Goizeder Otazua Zabala eta Maite Zelaia Gargarza).</p> <p>«Parlamentos sensibles al género en Euskadi: Parlamento Vasco y Juntas Generales en el siglo XXI». (Arantxa Elizondo Lopetegui eta María Silvestre Carrera).</p>
---	---

Leizaola Saria 2020: Epaimahaiak, aho batez, erabaki du:

- «Jesús María Leizaola» saria hutsik uztea.
- «Jesús María Leizaola» sariaren akzesita María Isabel González Pascual andreak aurkeztutako «Las salvaguardas de la autonomía política; carencias y potencial ante las crisis» lanari ematea.

JARDUNALDI ETA MINTEGI BEREZITUAK

Topaketak taxutzea eta antolatzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren berezitasunekin, Administrazioaren Zientziari edo Zuzenbide Publikoari lotutako gaietan sakontzeko.

19. TAULA. Jardunaldi eta mintegi berezituak

Izenburua	Data	Lekua	Parte-hartzaile kopurua
<p>Administrazio-prozedura eta sektore publikoaren araubide juridikoa berrikuntza teknologikoaren ikuspegitik</p>	<p>Ekainak 23 eta 24</p>	<p>Online</p>	<p>110</p>
<p>Europar Batasuneko zuzenbide-estatua arriskuan dago?</p>	<p>Uztailak 13, 14 eta 15</p>	<p>Online + Donostia-San Sebastián</p>	<p>37</p>
<p>Subiranotasun gatazkak Europan: konponbiderako oinarriak</p>	<p>Azaroak 11, 12 eta 13</p>	<p>Online + Bilbao</p>	<p>149</p>

ARGITALPENAK ETA LIBURUTEGIA / DOKUMENTAZIO-GUNEA

LIBURUTEGIA / DOKUMENTAZIO-GUNEA

Erreferentzia eta informazio bibliografikorako zerbitzua

Erabiltzaileari behar duen laguntza eskaintzea, eskura dituen zerbitzuen berri emanez. Liburutegi/Dokumentu-zentroak ez badu eskatutako zerbitzuren bat, ahal den neurrian, beste zentro batean aurkitu eta eskuratzeko informazioa emango zaio. Zerbitzu honen barruan, erabiltzaileari *online* katalogoa erabiltzeko argibideak ematea, liburutegiko funtsa kontsultatzeko, bai eta funts horien eskuragarritasuna eta maileguren egoera kontsultatzeko ere.

Informazio eta erreferentzia zerbitzu hau emateko, eskura dauden baliabide guztiak erabiltzen dira, bai Liburutegi/Dokumentazio-zentrokoak, bai kanpokoak. Azken hauek liburutegien arteko maileguaren (Eusko Jaurlaritzako langileentzako zerbitzu eskusiboa) eta Internet bitartez.

Funtsak erabiltzeko zerbitzua

Liburutegia/Dokumentazio-guneko monografiak eta aldizkako argitalpenak kontsultatzeko aukera ezberdinak eskaintzea:

- Irakurgelan bertan, monografiak eta aldizkako argitalpenak kontsultatzea.
- Liburutegia/Dokumentazio-guneak harpidetzan dituen aldizkako argitalpenen artikulak banatzea.
- Mailegua: funts monografikoak bertatik atera eta etxera eramatea.
- Liburutegien arteko mailegua: IVAPeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileek beste erakunde batzuetako liburutegietan dauden dokumentuak IVAPeko Liburutegian/Dokumentazio-zentroan eska ditzakete.
- Bi sukurtsalen arteko mailegua, erabiltzaileek bi sukurtsalen funtsak eskuratzeko aukera izan dezaten.
- Erreserba: erabiltzaileek materiala erreserbatzeko aukera dute; hau da, katalogoan kontsultatutako obraren bat, kontsultaren unean mailegu egoeran dagoena, aldeztatik eskatzeko aukera.
- Maileguak berritzea: erabiltzaileek maileguan daukaten obra beraren mailegu epea luzatzeko aukera dute, aurretik beste pertsona batek erreserbatuta ez badago.
- Erreprografia: maileguan eraman ezin diren materialetarako zerbitzua.

Informazioaren gaikako hedapena egiteko zerbitzua

Aldiro-aldiri, IVAPek espezializazio-arlotzat dituen gaietako buruzko informazio buletinak idaztea.

Web bidezko zabalkunde-zerbitzua

IVAPen webgunearen bitartez, honako produktu hauek zabaldu nahi dira:

- Liburutegi / Dokumentazio-guneko katalogoa
- Dokumentu berrien buletina
- Aukeratutako Informazioaren Hedapenerako buletinak
- Esteka interesgarriak

20. TAULA. Liburutegia / Dokumentazio-gunearen datuak

Erreferentzia eta informazio bibliografikorako zerbitzua	40
Funtsak kontsultatzea	330
Mailegu-zerbitzua	488
Dokumentazio-guneen arteko mailegu-zerbitzua	2
Informazioaren gaikako hedapena egiteko zerbitzua	33 buletin
Web bidezko zabalkunde-zerbitzua	7.775 kontsulta web-orrian

ITZULPENGINTZA, INTERPRETAZIOA, TERMINOLOGIA ETA ADMINISTRAZIO-HIZKERA

Covid-19 pandemiaren urtea izango da 2020. urtea. Jakina denez, martxoaren 14an alarma-egoera deklaratu zenetik, eman zituzten aginduen eraginez, egoera berrira moldatu beharra etorri zen sektore gehienetan, eta, besteak beste, pertsonen mugikortasunean ere izan zuen egoerak eragina; ondorioz, lan-eremuan telelanaren jarduna halabeharrez hedatuta, egun batetik bestera. Argi dago pandemiak zuzeneko eragina izan duela, beraz, Eusko Jaurlaritzaren jardun osoan, eta, konkretuki, gure bezero diren sail eta erakundee-tan, eta, horren ondorioz, Itzultzaile Zerbitzu Ofizialari (IZO) egiten zaizkion eskaeren bolumen globala jaitsi dela. Era berean, aurreikusi genuen bezala, IVAPeko itzultzaile automatiko neuronal juridiko-administratiboak ere (beste itzultzaile neuronal batzuekin batera) eragin zuzena izan du, eta bi faktore nagusi horien eragina igartzen da 2019an itzultitako hitz-kopuruarekin alderatuta.

Horrelakoa izan da IZOren jardun orokorra, baina, EHAaren esparruan ez da, tamalez, al-daketa handirik somatu. Aurreko memorian, 2019koan, jaso genuen EHAako dokumentuen nahitaezko sinadura arindu edo kentzeko aurreikuspena zegoela, horretarako, IZOren Dekretua aldatuta. Bada, ezin izan da helburu hori bete, batetik, dekretu-aldaketa batek prozedura luzea dakarrelako berez, eta, bestetik, tartean, 2020ko hauteskundeen ondorioz, gobernu berria eratu behar izan delako. Horrenbestez, Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren lan-karga orokorrak behera egin duen bitartean, EHAAn argitaratutako dokumentuen lan-kargak ez du 2020. urtean jaitzierarik izan, eta aurreko urteetako bolumenari eutsi dio.

Ildo horri jarraituz, erraz uler daiteke zergatik Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak (IZO) 2019an itzuli edo berrikusi zituen 22,5 milioi hitz guztira, eta 2020an, berriz, zergatik jaitsi zen % 17 itzulpen-arloko ekoizpen globala; zehatzago esateko, 18.622.014 hitz itzuli/berrikusi ziren guztira. Beste alde batetik, itzulpen- edo berrikuspen-jarduera globalak behera egiten zuen bitartean, Estatuko Aldizkari Ofizialerako itzuli zen hitz-kopuruak nabarmen egin zuen gora, eta aurreikuspenak gainditu zituen % 71 igota. Guztira, eta zehatz esanda, 1.027.338 hitz itzuli ditu Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak (IZO) 2020an Estatuko Aldizkari Ofizialerako, lege-xedapenak eta eguneroko sumarioak kontuan hartuta.

Oraindik ere itxaron beharko dugu Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren (IZO) erabiltzaileen eskaeren joera nondik nora doan argi ikusi arte. Lan-kargak beheranzko ildo horri eusten badio, nagusiki kuantitatiboa den esfera batetik kualitatiboagoa den esfera batera igaro ahal izango gara. Itzulnet, IZOri eskaerak egiteko aplikazio berria, 2020an erabat gaituta eta hobetuta egongo zela aurreikusi genuen iazko memorian, baina, aitortu behar da tresna horri bete-betean etekin osoa ateratzeko lanetan jarraitu beharko dugula 2021ean ere. Era horretara, eskaerak modu integrean eta egokiro kudeatzeko gaitasun osoa izango du, eta zerbitzuaren martxa neurtzeko adierazle guztiak argi, zehatz eta berehala lortzeko modua ere erabilgarri izango da; orain arte, horrelako lanak beste bide batzuetatik egin behar izaten ziren, eskuz. Aplikazioak 360 graduko ikuspegia emanda, adierazleen jarraipena hobetuko da zeharo.

Maila kuantitatiboan lan-karga murriztu bada ere, oraingoz ezinezkoa da itzultitako eta berrikusitako hitzen kopurua IZO berak bakarrik, hornitzaileen laguntzarik gabe, aurrera atera ahal izatea. Hornitzaileek, IZOren lana osatzearen, gaztelaniaren eta euskararen arteko itzulpenak egiten dituzte, bai eta itzulpen-prozesuarekin lotutako beste zeregin batzuk ere. Iaz, 2020an, indarrean zegoen kontratua amaitzekotan zen, baina, pandemiaren eraginez administrazio-epeak geldiarazi zirenez, luzatu egin zen kontratua. Epea berraktibatu denean, kontratu berri bat esleitu dugu urte-bukaeran: CO2/O03/2020. Kontratu hori, printzipioz, urte eta erdikoa da, eta 2024ra arte luza daiteke. Hasieran hamaika lote bazituen ere, horietatik % 28 esleitu gabe geratu dira, lizitatzailerik ez zegoelako. Azkenean, esleitu ez diren loteak hauek dira: 6. lotea [ES>EU eta EU>ES] testu elebidunak zuzendu eta aztertzeko, testuaren gaia eta luzera edozein dela ere; 7. lotea [ES>EU] zientzia, teknika eta prestakuntzari buruzko testuetarako, eta 8. lotea [ES>EU] Estatuko eta EAEko lege-testuetarako eta lege-xedapenei lotutako testuetarako. Beste lizitazio-prozesu bat jarriko da martxan 2021ean, hiru loteak esleitu ahal izateko.

Itzulpengintza juridikoa

Administrazio publikoen jardunerako beharrezko diren lege-testuak euskaratzen eta, ondoren, sareztatzen jarraitu dugu. IZOek, 2020. urtean, eutsi dio, oro har, aurreko urtean legegintza-arloan itzuli ziren Euskal Autonomia Erkidegoko lege-aurreproiektuen kopuruari. Guztira, 12 lege-aurreproiektu itzuli ziren 2020an, aurreko urtean baino bat gutxiago.

Estatuko legegintza-arloari dagokionez, Itzultzaileen Zerbitzu Ofizialak (IZO) jarraitu du 2020an Estatuko Aldizkari Ofizialerako lege-xedapenak euskaratzen: lege organikoak, legeak, legegintzako errege dekretuak eta errege lege-dekretuak. Zehatz esanda, 2020an, 61 lege-xedapen itzuli dira, eta aurreko urtean 31 izan ziren. BOEko aurkibideak ere itzuli dira 2020an, guztira, 320 sumario, aurreko urteko kopurua gaindituta (286 aurkibide).

IDABA

Itzulpenen datu-basean 2020an egin diren kontsultak eta informazio-eskaerak aztertzerakoan, esan behar da azken urteetako beherakadarik handiena gertatu dela, 53.805 kontsulta egin baitira guztira (aurreko urtekoaren herena). Arrazoiaren artean, Covid-19 pandemiaren eragina ikus liteke, baina, horrez gainera, badirudi Itzultzaile automatiko neuronalak ere izan duela zuzeneko eragina IDABAren kontsulta-jaitsiera horretan. Egoera horren aurrean, IZO hasi da prestatzen tresna honen erabilgarritasuna hobetzeko neurriak 2021erako.

Interpretazioa

Interpretazio-saioei dagokienez, Itzultzaileen Zerbitzu Ofizialak (IZO) 2020an 76 interpretazio-saio egin ditu; hau da, 2019an baino % 44 gutxiago. IZOren zerbitzuen artean zerbitzu honek izan du kalterik handienetakoa, bilera gehienak taldean eta aurrez aurrekoak izaten baitziren. Dena dela, konfinamendu garaian, eta ondoren ere bai, *online* interpretazio-zerbitzuak ere eskaini dira bileretarako, interpretazio-zerbitzua eskaintzen jarraitu ahal izateko.

Saioen ia erdiak (% 45), aurreko urteko joerari eutsiz, hiru sailek eskatu dituzte: Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak (% 19), Hezkuntza Sailak (% 14) eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (% 12).



IVAPeko interpretariak saio batean

Terminologia

Terminologia-atalak IZOkideei laguntza ematen jarraitu du 2020an ere; terminologiako kontsultei erantzun die eta glosarioak osatu ditu; guztira, 10 glosario. Era berean, Izo-term/ Euskalterm terminologia datu-baseak elikatzen jarraitu du; aurreko urtean egindako aurreikuspena ondo gaindituta; 500 sarrera aurreikusi, eta, guztira, 19.284 sarrera berri egin dira. Gainera, Terminologia-taldeko kideetako batek Kardiologiako Hiztegiaren Batzorde Teknikoan hartuko du parte hemendik aurrera.

DUDANET

Doako kontsulta-zerbitzua da, administrazio- eta lege-arloko terminologian eta hizkeran sor daitezkeen zalantzak argitzeko. 2020an, 390 kontsultari erantzun diogu (Ikusi 27. taula).

ELET

Aplikazio informatiko edo web-atari integratu honek hainbat hizkuntza-baliabide eskaintzen ditu euskaraz errazago lan egiteko; oso aplikazio erabilerraza eta intuitiboa da. Erabilerrari dagokionez, 2020ko datuen arabera, 701 erabiltzaile izan ditu eta, guztira, 11.673 kontsulta egin dira.

Itzultzaile, interprete eta terminologoaren prestakuntza

Prestakuntza-ekintzei dagokienez, IZOkideen hiru laurdenek (% 74k) hartu dute parte zerbitzuan eman diren hamaika prestakuntza-ekintzetako batean edo gehiagotan 2020. urtean. Prestakuntza-saioek 865 ordu hartu dituzte guztira, eta, horietarik gehienak (% 92), itzultzaileek, zuzentzaileek, interpreteek eta terminologoen aprobeixatzeak dituzte.

Prestakuntzan emandako ordu guztien erdiak (% 51) ikastaro konkretu baten inguruan inbertitu dira, «Euskara eta araugintza prozeduraren erronkak» prestakuntza-saio horietan, 22 langilek hartu baituzten parte. Beste ordu-kopuru bat (% 14koa) telelanari lotutako prestakuntza emateko izan da, eta hemen IZOko lan-arlo guztietako langileek hartu dute parte. Gainerako Prestakuntza-orduak beste arlo batzuk lantzeko erabili dira, besteak beste, hauek: euskara-gaztelania itzulpena, atzerriko hizkuntzak, informatika-aplikazioak, edukien kudeaketa, administrazio publikoetako arautegia eta zerbitzuarekin zerikusia duten bestelako gai batzuk.

21. TAULA. IZOren lan-karga

	Espedienteak	EHAArako hitzak	Bestetarako hitzak	Hitzak, guztira
Itzultzeko eta berrikusteko onartutakoak	8.787	7.381.296	11.240.718	18.622.014
Itzultzeko onartutakoak	4.583	2.892.757	11.179.308	14.072.065
Berrikusteko onartutakoak	4.204	4.488.539	61.410	4.549.949
IZOk itzulitakoak	2.399	1.378.290	4.262.271	5.640.561
Hornitzaileek itzulitakoak	2.184	1.514.467	6.917.037	8.431.504

22. TAULA. Itzuli/berrikusitako testu-motak

	Hitzak		Eskaerak
EHAArako ebazpenak	2.790.122	%15	1.616
Txostenak	2.687.878	%14	449
EHAArako aginduak	2.219.682	%12	856
Prentsa-oharrak	1.457.866	%8	572
EHAArako dekretuak	1.153.127	%6	245
BOErako lege-xedapenak	997.857	%5	62
Liburuak	927.421	%5	57
EHAArako iragarkiak	919.843	%5	1.967
Gidak	751.039	%4	156
Bestelako ebazpenak	664.165	%4	220
Bestelakoak	4.053.014	%22	2.665

23. TAULA. Itzulpengintzako/berrikuspeneko bezero motak

	Itzulitako hitzak	Ehuneokoak hitzen inguruan (%)	Espediente kopurua	Ehuneokoak espedienteen inguruan
EAEko Administrazio orokorra	16.199.039	87	7.342	84
EAEko gainerako sozietate publikoak	1.395.637	7	1.064	12
Estatuko Administrazioa	1.027.338	6	381	4
Guztira	18.622.014	100	8.787	100

24. TAULA. Interpretazio-saioak (2017-2020)

	2017	2018	2019	2020
Interpretazio-saioak	124	146	136	76

25. TAULA. Interpretazio-saioak bezero motaren arabera

Bezero mota	Saio kopurua	Ehuneokoak
EAEko Administrazio orokorra	40	51
EAEko gainerako sozietate publikoak	15	19
Enpresak	23	29

26. TAULA. Interpretazio-saioen bezeroak

Bezeroak	Saio kopurua	Ehuneokoak
Gobernantza Publiko eta Autogobernua	15	20
Hezkuntza Saila	10	13
Kultura eta hizkuntza-politika	9	12
Fagor S.Coop. Elk.	7	9
Fagor Ederlan, Koop. E.	4	5
Bestelakoak	31	41

27. TAULA. DUDANET

Kontsulta mota	Kontsulta kopurua	Ehuneokoak
Terminologia	369	94,65
Itzulpengintza	1	0,25
Administrazio-hizkera	20	5,10

28. TAULA. IDABA (2017-2020)

	2017	2018	2019	2020
Dokumentu kopurua	9.151	9.915	10.303	10.949
Kontsulta kopurua	141.772	179.334	156.956	53.805

29. TAULA. Itzulpengintza juridikoa

Eusko Jaurlaritzaren lege-egitasmoekin lotutako testuak	12 testu
Estatuko Aldizkari Ofizialaren euskarazko gehigarria	
– Eguneroko I. atalaren aurkibidea	320 aurkibide
– Lege-mailako xedapenak	61 testu

Administrazioa Euskaraz aldizkaria

Hiru hilabeterik behin argitaratzen den aldizkaria, 1993an sortua.

30. TAULA. Administrazioa Euskaraz aldizkaria

Argitaratutako zenbakiak	Harpidedun kopurua
107	14.826
108	14.889
109	14.885
110	14.898

- Aldizkariaren ale guztiak Interneten daude eskuragarri, IVAPeko web-orrian.
- Aldizkariarekin batera, *Solasaldiak* izeneko eranskina ematen dugu argitara. 30 orrialdeko eranskin horretan, ospe handiko pertsonaiaren bati egindako elkarrizketa sakon bat eskaintzen dugu urtean behin. 2020an, Andres Urrutia elkarrizketatu dugu.



IVAPek Administrazioa Euskaraz aldizkariaren lau zenbaki eta solosaldi bat argitaratu ditu 2020an

Bestelako argitalpenak

- *Administrazio-hizkera argia* bloga.

Administrazio Hizkera Atalak kudeatzen duen blogean 25 sarrera argitaratu ditugu euskaraz eta beste horrenbeste gaztelaniaz.

Emandako ikastaroak


- «COP sobre Lenguaje claro en publicación de servicios y procedimientos en euskadi. eus» (52 ordu)
- «20 aholku testu juridiko-administratiboen kalitatea hobetzeko» (30 ordu)

INFORMATIKAKO UNITATEA

IVAPeko aplikazio informatikoak kudeatzea eta mantentze-lanak egitea

Mantentze-lan egokitzailetan, 7.200 bat ordu sartu dira: IVAPeko hemeretzi aplikazio eguneratu dira, eta hobekuntza-teknologikoak egin dira; horretaz gain, funtzionaltasun berriak sartu dira, kudeaketa-beharrei erantzuteko.

Mantentze-lan egokitzailetatik, honako hauek aipa daitezke:



- DOI¹ sartu da *Herri Arduralaritzazko Euskal Aldizkariko eta Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkariko* artikuluetan. Era berean, aukera eman da *Herri Arduralaritzazko Euskal Aldizkaria* EPUB, HTML eta XML formatuetan deskargatzeko.
- EVETUk hirigintzako profesionaleri eskaintzen dizkien ikastaro modularren eskaerak digitalizatu dira, eta Tramitagunerekin integratu.


Garapen informatiko berriak

- Solaskidegunen, eskaera-kargak sartu dira, fitxategitik, euskalduntzeko ikastaroak kudeatzeko sisteman, IVAPekin hitzarmena sinatuta daukaten administrazio publikoentzat.
- Produkzioan jarri da hizkera juridiko administratiboko itzultzaile neuronal (Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzarekin, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin eta EJI Erekin lankidetzan) Euskadiko Autonomia Erkidegoko administrazio publikoentzat, Euskalsarea sarean integratuta daudenentzat.

¹ DOI (Digital Object Identifier) objektuen identifikatzaile digitala da (adibidez, aldizkari bateko artikulua elektronikoki, liburu elektronikoko baten kapitulu bat...), kontuan izan gabe zein den haren URLa; horrela, hura aldatuta ere, objektuak segitzen du identifikazio bera izaten). Soilik erabiltzen da argitalpen elektronikoetan; esaterako, aldizkari zientifikoetan eta bestelakoetan.

- Itzultzaile neuronalari beste funtzionalitate bat gehitu zaio, dokumentu osoak itzuli ahal izateko (docx², odt³ eta xliiff⁴ formatuak).

Berrikuntza-proiektuak



- Adimen artifizialeko sistema erabiliz, itzulpen-memoretako datu pertsonalak anonimo bilakatzeko saiakera pilotu bat egin da.
- Mugikorretarako aplikazio-pilotu bat egin da, izena eman ostean interesdunei automatikoki bidaltzeko zer berri argitaratzen den IVAPeko web-orrian, eduki-kudeatzailerako kategorizazio-etiketei loturik.

Komunikazio- eta informazio-sistemak hobetzea

IVAPeko Intraneta migratu eta berregituratu da Eusko Jaurlaritzako sareko langileentzat; baita IVAPeko langileentzako Intraneta ere. Bestalde, langileok Eusko Jaurlaritzako eduki-kudeatzailean integratu dira.

Covid-19k eragindako pandemiaren ondorioz, lainoan kokatu dira sareko eta posta elektronikoko biltegitratze-unitateak, edozein tokitik eskuragarri egon daitezzen Internet bidez. Era berean, kudeaketa-aplikazioetara jotzeko VPN⁵ bidezko konexio bat gaitu da.

² Microsoft Word.

³ OpenDocument. Testu-dokumentuetarako odt formatua.

⁴ XLIFF (XML Localization Interchange File Format) formatua XMLn oinarrituta dago, eta estandarizatzeko sortuta.

⁵ Virtual Private Network (VPN) ordenagailu-sareko teknologia bat da, sare lokala (LAN) sare publiko batean edo kontrolatu gabeko sare batean, hala nola Interneten, modu seguruan hedatzea ahalbidetzen duena.



Lankidetzatza informatikoa beste erakunde batzuekin

Hautaketa-prozesuak kudeatzeko aplikazioa jarri da Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren, Gazteriaren Foru Erakundearen (Arabako Foru Aldundia), Eusko Legebiltzarraren eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Gaietako Sailaren eskura, beren deialdiak egin ditzaten.

IVAPeko web-orria

IVAPeko web orriari dagokionez, 2020. urtean 1.334.434 saio erregistratu ziren, eta orriek 4.815.205 bisita izan zituzten. Saioaren batez besteko denbora 2:33 minutukoa izan zen, eta, batez beste, 3,61 orri ikusi ziren saioko.

5.

ARGITALPENAK

IVAPEK BAKARKA ZEIN BESTE BATZUEKIN BATERA ARGITARATUTAKO MONOGRAFIAK

IVAP

Jardueren oroitza 2019 / Memoria de actividad 2019

Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea, 2020. ISBN: 978-84-7777-590-4. Ed. digitala ISBN: 978-84-7777-592-8 (erdera). Ed. digitala ISBN: 978-84-7777-591-1 (euskara)

URIARTE RICOTE, Maite eta ORDEÑANA GEZURAGA, Ixusko

La mediación escolar en el sistema educativo vasco no universitario: del respaldo institucional al impulso normativo

Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea, 2020. ISBN: 978-84-7777-584-3. Ed. digitala ISBN: 978-84-7777-585-0

URIARTE RICOTE, Maite eta ORDEÑANA GEZURAGA, Ixusko

Eskola bitartekaritza unibertsitatez kanpoko hezkuntza sisteman: erakundeen babesetik, bultzada arauemailerara

Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea, 2020. ISBN: 978-84-7777-586-7. Ed. digitala ISBN: 978-84-7777-587-4

LASAGABASTER HERRARTE, Iñaki

Parlamento, Tribunal Constitucional, separación de poderes (con obligada referencia a Cataluña)

Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea, 2020. ISBN: 978-84-7777-593-5. Ed. digitala ISBN: 978-84-7777-594-2

(HAINBAT EGILE) Zuzendaria: MARTÍN DELGADO, Isaac




El procedimiento administrativo y el régimen jurídico de la administración pública desde la perspectiva de la innovación tecnológica

Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea y Madrid: lustel, 2020. ISBN: 978-84-9890-394-2

SERRANO CHAMIZO, Javier

La Ley de Contratos del Sector Público en la doctrina del Órgano Administrativo de Recursos Contractuales de la Comunidad Autónoma de Euskadi

Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2020. ISBN: 978-84-7777-595-9. Ed. digitala ISBN: 978-84-7777-596-6



IVAPeko argitalpen batzuk

IVAPEN ARGITALPEN SERIATUAK

Administrazioa Euskaraz


Oñati (Gipuzkoa): Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea = Instituto Vasco de Administración Pública, 1993. ISSN: 1576-5563. 2020: 107, 108, 109 eta 110. zenbakiak; «Solosaldiak» 17. zenbakia.

Herri-Arduralaritzazko Euskal Aldizkaria = Revista Vasca de Administración Pública

Oñati (Gipuzkoa): Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea = Instituto Vasco de Administración Pública, 1981. Lau hilabetetan behin. ISSN: 0211-9560. 2020: 116, 117 eta 118. zenbakiak

Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkaria = Revista Vasca de Gestión de Personas y Organizaciones Públicas

Oñati (Gipuzkoa): Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea = Instituto Vasco de Administración Pública, 2011. Sei hilabetetan behin. ISSN: 2173-6405. 2020: 18 eta 19. Zenbakiak



IVAPek hiru aldizkari argitaratzen ditu

6.

IVAP-EKO KIDEEN PARTE-HARTZEA BILTZARRETAN, JARDUNALDIETAN ETA EBALUAZIOETAN

- Administrazio publikoko enpleguari buruzko tailerra. Bizkaiko Ekonomialarien Elkar-goak antolatutako jardunaldia.
- Administrazio publikoko enpleguari buruzko tailerra, Deustuko Unibertsitateko ikas-leei zuzenduta.
- Administrazio publikoko enpleguari buruzko tailerra. Vitoria-Gasteizko Enplegu publi-koari buruzko Foroa.
- Administrazio publikoko enpleguari buruzko tailerra. Txurdinagako Lanbide Hezike-tako Ikastetxe Integratua.
- Administrazio publikoko enpleguari buruzko tailerra. Arrasateko Enplegu publikoari buruzko Foroa.
- «Procesos selectivos en la Administración Pública, ¿y ahora qué?» hitzaldia. Novagob biltzarra.
- «Procesos de innovación al servicio del aprendizaje» hitzaldia. Congreso nacional de Innovación y Servicios públicos (CNIS).
- Kanpo-kontrastea Lanbiden, Euskal enplegu zerbitzuan, Eusko Jaurlaritzaren Aurre-rabide proiektuarekin lankidetzan.
- Kanpo-kontrastea Gipuzkoako enpresa batean, Euskalit, Bikaintasunaren Sustapene-rako Euskal Fundazioaren Ebaluazio-Klubarekin lankidetzan.
- Sei euskal erakunderen zerbitzu-karten ebaluazioa, Q-eparean erakunde laguntzaile gisa.

Bestalde, IVAPek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko arduradunekin partekatu du da-tuen babesaren kudeaketan duen esperientzia.



IVAPek Euskaraldian parte hartu du

IVAPek Euskaraldiaren Bigarren edizioan ere parte hartu du. Hizkuntza ohiturak aldatu eta euskararen erabileran eragiteko helburua duen ariketa sozial hau Euskal Herriko erakunde publikoek eta Euskara Elkarteek Topaguneak elkarlanean antolatu dute, duela bi urte bezala.

2020ko edizioan, 54 langilek eman dute izena Euskaraldirako IVAPen datu-basean: 45ek Ahobizi rola hartu dute, beste 9k, Belarriprest. Horiez gain, beste zenbaitek haien herrietan izena eman eta rol bietakoren batekin jardun dute gurean, ariketak iraun duen egunetan; hain zuzen ere, 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra.

Bigarren edizioko berrikuntza nagusia ariguneak izan dira; alegia, euskaraz hitz egiteko aukera uneoro bermatzen duten guneak, izan entitate barruan (barne-arigunea) edo izan entitateak herritarrekin duen harremanean (kanpo-arigunea). Gurean, hiru arigune izan ditugu: kanpo-arigune bat, Bilboko egoitza, eta bi barne-arigune, Prestakuntza-zerbitzua eta Hautaketa-zerbitzua.